



*Gernika-Lumo Udala*  
*Ayuntamiento de Gernika-Lumo*



NEGUAREN  
*bihotza*

**GURE OHITURAK**

## AURKEZPENA

*Kultura bakoitzak eta herri bakoitzak egoera eta une desberdinen aurrean bere konportamenduak ditu. Hauetariko une batzuk urteak dakartzan ospakizunak dira, adibidez: Gabonak, Santa Ageda, Ihauteriak, San Juanak, etab. Kasu bakoitzean baditugu zenbait ohitura, esauda, abesti edo esaera.*

*Ohitura hoiengaz ezaugarri ahalik eta zabalena izan dadin, noizbeinka eskuarteetan daukazuen bezalako argitalpen txiki bat egitea bururatu zaigu, geure inguru urbileko ohiturekin eta Euskal Herri mailan ezagunenak direnekin.*

*Lan honen helburua Eskolei materiale lagungarri bat eskeintzea da eta, eskola umeen bitartez, Gernikako etxeetan sartzea.*

*Gernika-Lumo Udalako Hezkuntza Saila  
Gernikan, 1987-ko Abendua*

|                                    |                                |
|------------------------------------|--------------------------------|
| <b>Lanen eta abestien bilduma:</b> | Javier Urrutia<br>Itziar Zallo |
| <b>Irudiak:</b>                    | Edu Gordo                      |
| <b>Koordinatzailea:</b>            | Joseba Aizpurua                |
| <b>Laguntza eta baliabideak:</b>   | Busturialdeko ABT              |
| <b>Babeslea:</b>                   | Gernika-Lumoko Udala           |

# I. GERNIKAKO MARIJESIAK

«Bederatzi gau tristetan  
ibili gara otzetan...»

Gabon aurreko bederatzi goizaldez kale arteko haize hotza doinu biurtu eta gernikarren lo geldia esnatzera dator.

Zenbat urtez –herriko zaharrenek ere ez dakite noiztik– buruz jarraitu ditugun geure ohean melodia zahar hoiek, barruko zirrara batek iriparre bat ezpaintedara dakarkitun bitartean. Marijesiak dira. Marijesien sentimenduz beteko kantua.

Goaz Jose Antonio Aranak ohitura honetaz dioskuna gogoratzen.<sup>(1)</sup>

Bizkaiko herri askotan ospatzen den ohitura bada ere, indarririk handiena Gernikan du, Gabon egunaren bederatziurren bezala ospatzen bai da. Ikertzaile honen ustez, baliteke gaur ezagutzen ditugun Marijesiak antzerki gisa egiten zirenetariko «Misterio» baten zati izatea. Behintzat ospakizun haietariko baten kutsua gordetzen duela dirudi: bakarlaria eta taldea ondo bereizturik dijoaz beti; badago eleiza guztien atean belaunikaturik abesten dan bertso bat; bederatzi gauetan zehar hiru doinu desberdin erabiltzen dira, antzezlan baten hiru akto bailira; errondaren iraupena, urteak joan, ordu ta erdian mantentzea; baita bakarlaria eta taldearen arteko elkarrizketa bera ere; eta, azkenik, XVIII garren mendeko antzezlan batetan Marijesietako bertso berberak agertzen dira zati batetan.



XVII garren mendeko idazti batetan aurkitu izan dira oraindik gaur egun abesten diren Marijesien zenbait bertso. Hauxe dugu haien aipamen zaharrena. Kristoren jaiotza ospatzeko egiten zirenetariko antzerki zaharren batetik koplak bezala herrira, herritik bertso paperetara, hauetatik berriro XVIII garren mendean antzerkira eta urrengo mendean bertso paperetara berriz, Marijesiak bide luzea egin dute –dakigun baino luzeagoa agian– gure ganaino bizirik heltzeko.

Eta gaur, atzo bezala, ohiturak honela agintzen du:

Erronda goizaldeko lauretan hasten da, Andra Mari eleizako ate zahararen aurrean, bakarlariak –hau beti metro batzu aurretik eta taldeak belaunikoz bertso bat abesten dutelarik.

(1) J.A. Arana Martija: «Canciones de Navidad (Gabonetako Kantak)». Colección Temas Vizcainos n.º 84. C.A.V. 1981.

Gero, pausu biziz, urteroko ibilbide neurtua, eleiz ate guztietan aipatu bezalako geldiuinetxo bat eginez. Eta Historia Sakratua osoa garaunduko digute bertsoz-bertso, batak esan eta besteek erantzun, Adan izan zenetik Kristoren jaiotzararte, herriaren adimenetik ateratako irudi biziz osoturiko hainbat estrofatan. Bederatzigarren goizaldeko erronda urrengo eguerdirarte luzatzen da, eta une batez txistulari talde batek laguntzen ditu.

Gabon aurreko bederatzi gaueetan doinu misteriotsu batek esnatzen gaitu, gure leihopetik pasatzen eta, gero, zein oihartzuna bailitz, kale artean galtzen. Marijesiak ibili dira...

J.A. Arana'ren aipatutako liburutik hartzen ditugu ondoren dijoazen Marijesien hiru doinu desberdinak eta abesten diren estrofak.

Abenduaren erdia gaua eta beste erdia festa.

Abendu zuri, ez ardi eta ez axuri.

Lehen lau egunetan abesten den doinua:

A-BENDU SAN - TU HO-NE - TAN  
 KRIS-TOREN JA - IO - TZI — A [JA  
 ZO - TE EDER HO - NE - GAZ  
 GUZ - TI-OK POZ GAI - TI - AN  
 MA - RI - A JO - SE JE - SUS MARI - A

Beste bost gaueetan berriz, honekin abesten da:

BI - LO-SIK BA — ZA-GOZ ERE  
 E - ZA-RA ZU — PO - BRI-A  
 ZE - RU-AN JO - SI - RIK DA — GO  
 ZU-RE-TZAKO E - RRO - PI - A [JESU-  
 KRISTO, A - DO - RA - TZEN ZAI - TU - GU JESUKRISTO

Hauexek dira aurreko doinu biekin abesten diren koplak:

1. Abendu santu honetan  
Kristoren jaiotza  
kontetuaren handiz  
guztiok poz gaitian.
2. Adan formadu zan  
lehenengo lurrian.  
Pekatu egin eban  
paradiso ternalian.
3. Linboan egon zan deiez  
bost mila urtian,  
Jauna zerutik lurrera  
etorri zen artian.
4. Erabagia izan zan  
Trinidad altuan  
behar zala bialdu  
lurrera aingerua.
5. Eguzki dibinala  
gauaren gauerdian  
etorri zan mundura  
gizonaren antzian.
6. Trinidad altuko  
bigarren personia  
transformadurik dago  
Belengon portalian.
7. Idigi dira zeruko  
ate diamantezkoak  
harexekin batera  
leiho izarrezkoak.
8. Nabegadua izan zan  
bederatzi hila betian  
mundu honetako  
itxasoaren gainian.
9. Eguzkia nola doan  
kristalaren artetik  
semia jaio dala  
amaren sabeletik.
10. Nor da hemen mensajerua:  
San Gabriel aingerua,  
egingo dabena ondo  
Jaunaren agindua.
11. Josepe ditxosua  
ia da denporia  
zeugandik jaiotzeko  
Jesus Salbadoria.
12. Otzaren ikaraz dabil  
jaio dan infantia;  
bere amak dirautso:  
ixil ene semia.
13. Astoak arrantzia  
idiak arnasia  
halan berotzen eben  
jaio zan infantia
14. Hiru Errege Magoak  
hain bide luzian;  
ostatu hartu eben  
hain etxe pobrian.
15. Gasparrek intzentzia  
Meltxiorrek urria  
Baltasarrek eroan eban  
mirra preziosua,
16. Herodes Erregia  
hain faltso traidoria  
zeren damua dozu  
Kristoren jaiotzia.
17. Mendian egozala  
jagoten ganadua  
manifestadu jaken  
zerutik aingerua.
18. Agur ba Dontzellia  
graziaz guztiz betia,  
zeure izena dozu  
Maria Birjinia.

19. Arkangel San Gabriel  
anunziadoria,  
ez gaituz espantatu  
hain jente humildia.


20. Josepek dirautso  
Maria Birjinari:  
noiz deklaratu dabe  
esperantza geure hori?

21. Nor eta nor bizi da  
etxetxu zahar horretan?  
Nor eta zer gura zeunke  
Jaunaren ordu honetan.

22. Seina bilosik dago  
lur otzaren ganian  
amia belauniko  
negarrez aurrian.

23. Bilosik bazagoz ere  
ezara zu pobria  
zeruan josirik dago  
zuretzako erropia.

24. Sakramentu Santu Jauna  
zelebradu zanian  
izena imini eutsen  
Jesus Salbadoria.



Gabon eguneko goizean doinu berri bat hasten dute Marijesiak:

NA - ZA - RE - TE - KO TEN PLUAN DA - GO  
AN - DRA E - DER BAT JA - RRI - RIK (bis)  
I - ZE - NA BE - RAK MA - RI - A DAU - KO  
ON - DO GRA - ZI - AZ BE - TE - RIK [ TA  
BART BE - LE - NEN TA BART BE - LE - NEN  
JA - IO DA JE - SUS NA - ZA - REN (bis)

1. Nazaretoko Tenpluan dago  
Ama eder bat jarririk  
izena berak Maria dauko  
ondo graziaz beterik.

2. Belenengo urian  
Gabon gauaren erdian  
Birjina Santissima dago  
kontzolahandian.

3. Pastore santu bertuosuak  
baliu zakiguz hemen  
bart arratsian zer pasatu dan  
konta dagigun Belenen.

4. Korraletako ardiak bere  
dantzan ebiltzan orduan  
geure Jesus Salbadoria  
jaio dalako munduan.

5. Jesus dibino gauaren otzan  
jausten dan inetazie!  
erloju bien honela bada  
hil da ganadu guztie.

6. Hortixik gora ni noiela  
ospitaletxu zahar baten  
aita San Jose topatu neban  
astotxu bat txalmatzen.

7. Bederatzi gau tristetan  
ibili gara otzetan  
borondaterik badaukazu  
poztuko gara benetan.

## II. OLENTZERO

«Olentzero joan zaigu  
mendira lanera,  
intentzioarekin  
ikatzak egitera...»

Toki askotan bere ospakizunaren ohitura galdu ez delako eta beste batzutan azken urteotan berpiztu egin delako, Olentzeroren esanda Euskal Herri osoan zehar zabaldua dago.

¿Nor da Olentzero? Urte osoan mendi-basoan ikatza egiten dihardu Olentzerok. Beraz, Olentzero ikazkina dugu. Baina bada urtean mendia utzi eta gure baserri eta kaleetara etortzen den sasoi bat: Gabon arratsaldea. Eta etorri ere berri handi bat ematera: Eguzki berria jaio dela. Eguzki berriak esan nahi du urte berri bat hasten dela, Gabon gaba igaro ondoren eguna luzatzen hasten bai da. Eguzki berri hau kristautzat Jesus hauraren irudi bat da, baina kristautasuna Euskalerrira etorri baino lehenago ere eguzkia jaungoikotasunaren errepresentazioa zen.


Olentzerok kristoren jaiotza, Eguzki berria eta Urte berri bat iragarten dizkugu. Horrexegaitik etortzen da zuzi bat eskuan duela, edo sua pizteko ota batzuk galtzarpean dituela: sua laister jaioko dan Kristo, Eguzki eta Urte barriaren sinboloa delako.

**Gabon, bonbon; Natibitate, ase ta bete;  
San Estebantxe, bestetan letxe.**

Eta ez hori bakarrik, Olentzerok saku bete opari ekartzen du gaztetxoen artean banatzeko.

Urtero aurkituko dugu, Gabon iluntzean, edozein herriko kale edo bidetan, bere ikatzez baltzitutako aurpegi lodi eta tripa handiarekin, -edatea eta jatea oso atsegin bai omen du-, pipa bat muturrean duela eta otzara baten gainean eserita.

Eta bere inguruan, gazte nahi nagusi, jente mordo batek hauxe abesten dio:



## OLENTZERO, BURU HANDIA

①

O - len - tze - ro bu - ru - aun -  
 di - a en - ten - di - men - tu ga - bi -  
 a Bart - ar - ra - tse - an e - dan o -  
 men du a - mar ar - rua - ko za - gi -  
 a Ai, ur - de tri - pa aundi - al  
 Ai, ur - de tri pa aundi al

Olentzero, buru aundia,  
 entendimentu gabia.  
 Bart arratzean,  
 edan omen du,  
 amar arruako zagia.  
 Ai, urde tripa aundial (bis)

## HORRA, HORRA

②

O - rra, o - rra, gu -  
re O-len-tze - ro, pi - pa or-tze-an  
du - la e - se - ri - ta da - go. Ka -  
poi - ak ba di - tu, a -  
rraul-txa-tzo - a - kin, bi - ar me-ren-da-  
tze - ko sa - gar - do - a - re - kin

2

Orra, orra,  
gure Olentzero,  
pipa ortzean dula,  
eserita dago.  
Kapoiak ba ditu,  
arraultzatxoakin,  
biar merendatzeko,  
sagardoarekin.

## OLENTZERO JOAN ZAIGU

③

O - len - tze - ro joan zai - gu  
men - di - ra la - ne - ra,  
in - ten - txi - yu - a - re - kin  
i - katz e - gi - te - ra.  
A - di - tu du - a - ni - an  
Je - sus jai - o da - la,  
lais - ter - ka e - to - rri da  
be - rri e - ma - te - ra.

3

Olentzero joan zaigu,  
mendira lanera,  
intentziyuarekin,  
ikatz egitera.  
Aditu duanian,  
Jesus jaio dala,  
laisterka etorri da,  
berri ematera.



# Olentzero eta Eguzki

Orain urte asko  
Herri txiki txiki batetan



Herritarrek, baserri-  
tik lan egiteko irretzen  
ziren: basora, soloetara  
edo ardiak zaintzera  
joateko...  
Egun batean Gava  
oso luzea egin zen...

ZZZ

... Eguzki lo zegoen.

Behiak eta ardiak  
hotz dira!!

EGUZKI!!

?

EGUZKII!!

ETORRI!!

Suhaitzak bilusik  
gelditzen dira  
hostoak galduta.

Eguzki...  
non dago?

Loreak tximurtu  
egiten dira!!

Ikazkin bat etorri zen basotik... Olentzero zuen izena.

Zer gertatzen  
zaizue?


Gaur...  
Eguzki  
ez da  
irten!

Deitzen ari  
gara... eta ez  
du erantzuten

Su handi bat egingo dugu.  
Beroarekin Eguzki esnatu  
gingo dugu!!



Enbor hau da..  
Subila



Gaur egun herri  
hau oso handia  
da. Baina  
danok elkarturik,  
Olentzeroarekin  
batera, Eguzki  
deituko dugu.

EDUB7

### III. GABON ZUZIA edo GABON SUBILA

Euskalerrri osoan zabaldua dago Gabon gabeen enbor bat sukaldean erretzeko ohitura. Enbor honi toki batzutan «Gabonzuzia» deitzen diote, eta beste batzutan «Gabon subila», baita «Olentzero enborra» ere nunbaiten.

Enbor honek baditu herriaren ustetan birtute eta eragin handiak. Toki gehienetan etxeokoak eta haien abereak edozein gaitzetik (ekaitza, gaixotasuna...) libratuko dituen ustea dago.

Zalantzarik gabe, ohitura honen sustraiak kristautasuna zabaldu aurreko garaietan aurkitzen dira. Neguko solstizioan enbor bat erretzeko ohitura eguzkiarekiko kultoaren agerpide bat litzake.

*Eguberriz sua mokorrekin,  
Paskoz xixtapurrekin.*



### ATOR, ATOR

*Allegretto*

IA - tor, a - tor, mu - til e - txe - ral Gas - ta - ña  
 zi - me - lak ja - te - ra; Ga - bon - ga - ba os - pa - tu -  
 te - ko ai - ta - ren ta a - ma - ren on - du - an.  
 I - ku - si - ko dok ai - ta ba - rre - ka. a - ma. be.  
 poz - a - tse - gi - ñez. E - ra - gi - jok, mu - til, au - rre - ko  
 dan - bo - lin o - rri; gas - ta - ñak e - rre - ar - ti - an,  
 gas - ta - ñak e - rre - ar - ti - an, txi - pli, txa - pla,  
<sup>fa</sup> Ipun! Ga - bon - ga - ba po - zik i - ga - ro dai - gun.

### ATOR, ATOR

¡Ator, ator mutil etxera!  
 Gastaña zimelak jatera;  
 Gabon-gaba ospatuteko  
 aitaren ta amaren onduan.

Ikusiko dok aita barreka,  
 ama, be, poz-atsegiñez. } bis

Eragijok, mutil,  
 aurreko danbolin orri;  
 gastañak erre-artian,  
 txipli, txapla, ¡pun!  
 Gabon-gaba pozik  
 igaro daigun.

## IV. OGISALUTADORE

Bizkaiko herri askotan zabaldua dagoen ohitura da hau. Toki gehienetan Gabon gabean mahaira ateratzen den ogi zati bat gorde egiten da. Ogi honek amorruren kontra eragin handia eukiko omen du urtean zehar, eta baita uholden kontra, edo itsaso «amorratuaren» kontra ere zenbait tokitan, edo ekaitzaren kontra. Herriak, ahantza denez, amorrua eta beste fenomeno hoiien artean zerikusiren bat aurkitu izan du.

**Dringilin dron, bataren gaitza, bestearen on.**

### GABON GABEAN

Allegro


Ga - bon ga - be - an oi - tu - ten do - gu — guz - ti  
 ok a - pa - ri o - na, — bi - xi - gu, le - batz, ma - ka - llau  
 sal - tsa, — ba - ko - txak be - rak al dau - na, ge - ro txu - rrun - plin -  
 pau, ar - dau ta pa - ta - rra, ka - ru - bak ar - tu - ta, za - bu za - bu - ka.

### DRINGILIN DRON

Andantino

Drin - gi - lin dron, gaur Ga - bon, sa - be - la be - te - a dau - kat  
 e - ta bes - te - ik or kon - pon. 1. Maz - ke - lo be - te - a - za e -  
 go - si, o - ri, zu - ri ta go - rri - ak, be - te - a -  
 la i - tun - tsi neu - tsa - zan az - ke - nen - go - ko o rri - ak.

2. Iru ortzeko tresnatxo batez, morokil-ore bai litzan, ezti-lapiko andisko bati barrua uts-uts ein neutsan.



## BIRJIÑA MAITE

Andante

Bir - ji - ña mai - te, lo - tan da - go zu - re  
 Se - me laz - ta - na; se - as - ka txo - an i - pi - ñi za - zu gu - re bi -  
 o - tzen ku - ñu - na. 1. On - gi, bai, on - gi i - ga - ro  
 2. Ze - ru goi - goi - tik gu - ga - na  
 di - tzan gau - a e - ta e - gu - na, po - li - ki,  
 da - tor gu - re Je - sus laz - ta - na, las - ter - ka.  
 po - li - ki e - ra - gi - yo - zu e - gin de - zan lo o - na  
 las - ter - ka goa - zen, kris - tau - ok, gu - re jau - na' ren - ga - na



Eguberri ilergirik gabe, artzaina  
 axuririk gabe.

## MESIAS SARRITAN

Allegretto

Me - si - as sa - rri - tan a - gin - du za - na, ain - ge - ru  
 ar - ti - an da - tor gu - ga - na. — ga - na. Glo - ri - ya ze - ru - an  
 ba - ki - a e - men, — kan - ta - ri - ain - ge - ru - ak da - goz Be - le - n' en.  
 Kan - ta - ri - ain - ge - ru - ak da - goz Be - le - n' en. *Fine*  
 Be - len' go por - ta - li - an ne - gu go - go - rri - an, —  
 ja - yo da gu - re Je - sus as - ka - txo ba - ti - an, — es - tal - gi ba - rik  
 da - go a - be - re ar - ti - an, — guz - tiz al - tsu - a da - na ze - ru ta lu - rri -  
 an. An - txe da - go — gu - re Je - sus, — an - txe da - go, —  
 bai; Aur - txo txi - ki - a as - kan da - go, A - mak e -  
 sau - tzo lo ei - te - ko, ba - ña Aur - txo - ak be - gi - ya - kin, e - sa - ten  
 di - yo: "A - ma, e - zin." An - txe da - zin." *All. D.C. 3/4*

## OI, BETHLEEM

Andante

Oi, Be - thle - em! E - to - rri da zu - re ga -  
rai - a, Oi, Be - thle - em! On - gi baj - tu diz - ti - ra -  
tzen zu - ga - nik hel - du den — ar - gi - ak be - te - tzen  
'tu baz - ter — gu - zi - ak. Oi, Be - thle - em! — Oi, Be - thle - em!

## ORRA MARI DOMINGI

Andante

O - rra Ma - ri Do - min - gi, be - gi - ra o - rri —  
gu - re - kin nai ba - de - zu Be - le - n'a - e - to - rri —  
gu - re - kin nai du - be - la Be - le - n'a - e - to - rri —  
a - te - ra bear - ko de - zu go - na zar o -  
ri — A - toz, a - toz, zu - re bi - lla nen - bi - llen ni —, a -  
toz, a - toz, zu - re bi - lla nen - bi - llen ni —; a - toz, goa - zen a - do - ra de -  
za - gun Be - le - n'en ja - yo dan Aur e - der o - ri, Aur e - der o - ri —.

Eguberri zerekin, Urteberri harekin.



## V. URTE BARRI

Gabonetatik Erregetara dijoan garaia oso aberatsa dugu erronda abestian. Ohitura zaharra eta oso ezaguna da gure herrietan Urtebarri goizean gazte edo haur taldeak etxez etxe abesten ibiltzea. Gaia edozein izanik ere, abesti hauetan beti amaitzen da eskariren bat eginez, «eskua luzatuz» azken batetan. Gaur egun sari hau dirutan emoten da, baina garai batetan – baserri giroan batez ere – janariren batzu izaten ziren.

### URTE BARRI BARRI

*Andante mosso*



Ur - te bar - ri bar - ri txar - ri be -




lar - ri, dekon - ak es - te - kon - a - ri nik es - te - kot e - ta

*Allegro*




ni - ri. A - pa - la - xi - o sal - dun - a i - ru or -



e - gon e - gun - a, zots - ak e - ta pa - lu - ak txo - ri bi -




or - en kon - tu - ak. E - mongo do - zu e - moi - zu baldin e -



mon - go ba - do - zu, zu - ri be - gi - ra gagozan ar - teegi - ten



ya - ku be - ran - du. A - pa - la - xi - o mi - ri mon - te - na i - ruin.



txaur - ta lau gaz - tai - ña.



Urte barri, zoroak bere igarri.

Urtarril hotza, neguaren bihotza.

Urte barri nahiz urte zahar, Martzelino  
praka zahar.

## VI. ERREGEAK

Gabonak, edo urtearen amaiera eta berriaren hasera, ia mundu osoan ospatzen dira.

Mendebaldean, Euskal Herria kokatzen den arean, pertsonaiak, sinboloak eta ohitura askoren azpian dagoen sentidua bardintzuak dira. Baina herri eta kultura bakoitzean personalitate desberdinekin agertzen dira.

Erregen ospakizuna, ostera, berdina dela esan dezakegu kristau influentzia duen mundu osoan.

Oraintsu arte «Orienteko Errege Magoak» izaten ziren hemengo haur guztien urteko gau zoriontsuena zekartena: opariak, jostailuak, ...

Errege eguneko goizean mutikoak etxez etxe ibiltzen dira honako, edo ahanterako, abestiak kantatuz eta, Eguberriz egiten dan bezala, «eskua luzatuz»...

### ERREGIAK DATOZ

Andante

E - tre - gi - ak da - toz pre - saz Be - le - na, guk bi - lla de -  
 za - gun al dan le - ne - na. I. A - te txo - ku - an o - llar bi, ba - tak bes -  
 ti - a di - ru - ri, e - txe on - ta - ko e - txe - ko an - dri - ak A - ma Bir -  
 ji - ña di - ru - ri. A - ma Bir - ji - ña, A - ma Bir - ji -  
 ña, zu ze - ra ze - ru - ko E - rre - gi - ña

### ERREGIAK DATOZ

E - rre - gi - ek da - toz Je - sus a - do - ra - tzeu, Je -  
 sus a - do - ra - tzeu. Gu be e - men ga - toz, Li -  
 mos - ni - e ba - tzeu. Li - mos - ni - e ba - tzeu. A - pa - la -  
 zi - o zal - du - ne, I - ru E - rre - gen e - gu -  
 ne, zo - tzeak e - ta pa - lu - ek, txo - ri bi o - rren kau - tu -  
 ek. E - men - ga - toz lau, kau - pak jo - ten bi, e -  
 moi - zu Li - mos - ni - e Javu - goi - koa gai - tik. EUP!!



## ERREGEAK

Trakatan, trakatan iru Errege  
trakatan, trakatan Belenera  
Belenen jaio dan Jesus Aurtxo  
trakatan, trakatan jaurestera.

Meltxorrek trakatan zaldia baltza,  
Kaxparrek trakatan zaldi gorri,  
trakatan, trakatan Baldasar zarrak  
zaldia trakatan zuri-zuri.

Zapatutxu au  
jostailu politak ematera.

Urtarrilleko lehen hamabi egunak, zotal  
egunak.  
Elur askoko urtea, urte doatzua.  
San Simon eta Juda, uda joan eta negua heldu  
da.

## AURKIBIDEA

|  |    |
|--|----|
| Aurkezpena   | 3  |
| <b>I. Gernikako Marijesiak</b>                                 | 4  |
| • Lehen lau egunetan abesten den doinua                        | 7  |
| • Beste bost gauetan berriz, honekin abesle da                 | 7  |
| • Hauexek dira aurreko doinu biekina abesten diren koplak      | 8  |
| • Gabon eguneko goizean doinu berri bat hasten dute Marijesiak | 10 |
| <b>II. Olentzero</b>   | 11 |
| • Olentzero, buru handia                                       | 13 |
| • Horra, horra   | 14 |
| • Olentzero joan zaigu   | 15 |
| • Olentzero eta Eguzki (Komik)                                 | 16 |
| <b>III. Gabon zuzia edo Gabon subila</b>                       | 18 |
| • Ator, ator   | 19 |
| <b>IV. Ogisalutadore</b>                                       | 20 |
| • Gabon gabea  | 20 |
| • Drigilin dron  | 21 |
| • Birjiña maite  | 22 |
| • Mesias sarritan  | 23 |
| • Oi, Bethleem   | 24 |
| • Orra Mari Domingi  | 25 |
| <b>V. Urte barri</b>   | 26 |
| • Urte bari bari   | 26 |
| <b>IV. Erregeak</b>  | 28 |
| • Erregeak datoz   | 28 |
| • Erregeak datoz   | 29 |
| • Erregeak   | 30 |